



OREKAN

Orekanek, Aste Santuko oporretarako kontziliazio-programak, eskola-oporraldi honetan familiei laguntzea du helburu nagusi, adingabeen garapen integrala sustatzen duten jarduera eta espazio seguruak eskainiz.

Familiei dagozkien helburuek honako hauek biltzen dituzte:

- Familiei laguntzea lana eta familia uztartzen
- Gurasoek edo tutoreek beren lan-erantzukizunak bete ahal izatea erraztea, seme-alaben zaintza eta ongizatea alde batera utzi gabe.
- Aukera eskuragarriak eskaintzea, familiek aukera seguruak eta fidagarriak izan ditzaten, seme-alabak geratu eta oporretan hartu ahal izateko.

1- Nori zuzendua: 2020tik 2012ra bitartean (biak barne) jaiotako neska-mutileei, esfinterren kontrolean autonomia dutenentzat, autonomiarik eza justifikatzen duen dibertsitate funtzionala duten haurrentzat izan ezik.

2- Plaza kopurua:

Gutxieneko plaza-kopurua: 6 (6 izen-emate ez badaude, programa hau bertan behera geratuko da gutxienez)

Gehienezko plaza kopurua: 15

Dibertsitate funtzionala duten adingabeak inskribatzen badira, eta dibertsitate horren arabera, plaza-kopurua murriztu ahal izango da.

3- Datak eta ordutegia:

Apirilaren 22, 23, 24 eta 25ean, Akelarre ludotekan.

Ordutegia:

1. aukera: 9:00etatik 13:00etara
 2. aukera: 11:00etatik 13:00etara
2. aukera martxan jarriko da, 1. aukeran plazak osatu ezean, txanda hori lehentasunezkoa baita.

4- Tarifak:

1. aukera: Haur bat: 8€ Bi edo gehiago: 12€
2. aukera: Haur bat: 4€ Bi edo gehiago: 6€

Tarifak ordaintzetik salbuetsita egongo dira udalean berariaz eskatu ondoren, oinarritzko gizarte-zerbitzuek horretarako egindako txostenaren bidez prekarietate ekonomikoa egiaztatzen duten pertsonak.

5- Inskripzioa: martxoaren 17tik apirilaren 4ra arte udaletxean.

- Ez da inskripziorik onartuko aldi horren ondoren, adingabeak kanpaina honetan parte hartzeko beharra justifikatzen duten organismo edo erakunde publikoek egin ditzaketen eskabideak izan ezik.

6- Onartzeko irizpideak: Plaza kopurua baino eskari handiagoa badago, irizpide hauek aplikatuko dira:

1- Erroldatzea:

- a.- Olaztin gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten haurrak. Guraso dibortziatuen adingabeen edo antzeko egoeren kasuan, haurra legezko zaintza dela-eta erroldatuta ez badago, haurraren tutoreetako batek bete beharko du erroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna.
- b.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin erroldatuta dagoen lehen mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak.
- c.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin erroldatuta dagoen bigarren mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak.
- d.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, Domingo Badosen eskolatuta daudenak.
- e.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak, tutoreetako batek udalerrian lan egiten badu.
- f.- Olaztin erroldatu gabeko haurrak.

2- Inskripzioa 1. Aukeran

3- Baremo hau aplikatzea: lortutako puntuazio handiagoa.

Arduradun bakarreko familia izanik, arduradunak , bere lanarengatik, prestakuntza-beharrengatik edo-ta beste edozein arrazoiarengatik, programaren ordutegian seme-alaben ardura bere gain hartu ezin duenean.	25 puntu
Bi arduraduneko familia, aurrekoaren egoera berdinean dagoenean.	20 puntu
Bi arduraduneko familia izanik, arduradunetako batek, bere lanarengatik, prestakuntza-beharrengatik edota beste edozein arrazoiarengatik, programaren ordutegian seme-alaben ardura bere gain hartu ezin duenean	10 puntu

***Plaza kopurua baino eskari handiagoa badago, inguruabar horiek justifikatzeko dokumentazioa eskatuko da.

4- Berdinketa gertatuz gero, izena emateko hurrenkera erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa.

7- Ordainketa:

Udalak onartuta dagoela konfirmatu ondoren ordainketa egingo da dirua ingresatuz udaleko edozein kontutan eta ordainagiria udaletxera eraman behar.

8-Bajak: Dirua soilik itzuliko da baja inskripzio-epean gertatzen bada, eta Udalari jakinarazi ondoren.

9- Baliogabetzeko aukera: Udalak aukera izango du baliogabetzeko, ezinbesteko arrazoiengatik; kasu horretan, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.